



Kultura eta jasangarritasuna



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kultura eta jasangarritasuna

Kontzeptuak eta estrategiak

Aurkezpena

1 Kulturaren eta jasangarritasunaren arteko harremana

- 1.1. Jasangarritasunaren kontzeptuaren jatorria eta indarraldia
- 1.2. Garapen jasangarriaren ondorioak
- 1.3. Kultura, garapen jasangarriko mekanismo gisa

2 Garapen jasangarria, agenda politikoan

- 2.1. 2030 Agenda
- 2.2. Agenda 21
- 2.3. Europako Kultur Agenda berria (2018)

3 Jasangarritasunak kulturaren duen presentziari buruzko irakurketak

- 3.1. Kultur garapenaren ikuspuntutik
- 3.2. Ekosistema kulturalaren ikuspegitik

4 Estrategiak eta tresnak

- 4.1. Plangintza: Tokiko ekintza-planak eta agendak
- 4.2. Prozesuak: Ingurumenaren jasangarritasunari buruzko ziurtagiriak
- 4.3. Ebaluazioa: Inpaktuaren ebaluazioa

5 Laburpen gisa

6 Erreferentziak

Aurkezpena

Kulturak eta garapen jasangarriak beti izan dute elkarrekiko lotura, eta, aldi berean, interdependenteak izan dira. Azken 30 urteotan, gainera, truke hori bizkortu egin da maila globalean. Ikuspuntu holistikoen bilakaera berez dago mundu mailako eztabaidei lotuta; batez ere, jasangarritasunaren kontzeptuari buruzko eztabaidei lotuta. Gai hori gaur egungo agenda politikoaren erdi-erdian dago.

Ikerketa hau kulturaren eta jasangarritasunaren arteko binomioan sakondu nahitik abiatzen da. Orain arte, analisiaren erronka jakin batean zentratu izan da; zehazki, kulturaren aldagaia garapen jasangarrira bideratutako estrategia politikoetan sartzearen inguruko erronketan. Puntu honetara helduta, diskurtsoaren eragina kontrako ikuspuntutik ebaluatzeko beharrezana sortzen da: jasangarritasunaren kontzeptua nola sartu den kulturean, alegia.

Txosten honen helburua kulturaren eta ingurumenaren arteko loturei buruzko ikerketara hurbiltzea da, bai eta kultura ingurumen-erantzukizunaren bizkortzaile gisa aztertzea ere. Prozesua joan-etorriko bidaia gisa ulertu behar da, eta, biraketa horren bitartez, geure buruari galdetu beharko diogu jasangarritasunari buruzko kontakizunek nolako eragina izan duten kulturean.

Jasangarritasunarekiko interesaren adibide gisa, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari bat New Yorkeko *High Level Political* Forum hitzaldian parte hartzen ari den unean egin da txosten hau. Aipatutako hitzaldia Nazio Batuek antolatu dute, mundu osoko 47 herrialde biltzen dituen eta garapen jasangarriari buruzko gaiak jorratzen dituen 2030 Agendaren jarraipena eta azterketa egiteko. Foro horrek ministerio-adierazpena egingo du, eta espero da adierazpen horrek “lidergo politikoa, orientazioa eta gomendioak” emango dituela 2030 Agendaren aplikazioaren inguruan.

1 Kulturaren eta jasangarritasunaren arteko harremana

1.1 Jasangarritasunaren kontzeptuaren jatorria eta indarraldia

Ikuspuntu modernotik, Alexander von Humboldt izan zen jasangarritasunaren ideiaren aitzindaria. Hura izan zen natura osotasun gisa eta elkarri lotutako eta elkarren menpeko sare gisa ulertu zuen lehenengoa. Naturaren funtzionamendua ulertu zuen lehenengoa eta natura zaindu beharraz ohartu zen lehenengoa. Gaitasun handia zeukan isolatuta daudela diruditen fenomenoak erlazionatzeko; izan ere, gauzak zehaztasun osoz aztertzen zituen, eta, horrez gain, fenomenoen eta zientzien arteko loturak ulertzen eta sintetizatzen saiatzen zen. Ondorioz, naturari buruzko ideiaren zentzu modernoaren ernamuinean kokatuta dago. Termino hori erabiltzen ez zuen arren, gaur egun ekosistema gisa ulertzen duguna Humboldti zor diogu.

Ilustrazioaren seme izanik eta erromantizismoaz blaituta egonik, bere garairako guztiz ikuspegi berritzailea izan zuen. Eta, bi mende geroago ere, indarrean jarraitzen du. Natura harreman eta konexio ugari osatutako sistema dela erakutsi zuen, plan jainkotiar baten arabeko sistema mekanikoaren ideari aurre eginda. Ordura arte, aurrerabidea gizakien esku-hartzearekin erlazionatzen zen, gizakiak ordena eta harmonia jartzen zituelako natura basatian. Alabaina, Humboldtek esku-hartze horren arrisku posibleak antzeman zituen. Gizakien esku-hartzeak mugak izan beharko lituzke, inguru naturalean dituen ondorioengatik. Venezuelako Valencia lakuan egin zituen ikerketek halaxe frogatu zuten. Beste alde batetik, bere espedizio eta landa-lan ugarietan ez zen oharrak hartzera eta dokumentazioa biltzera mugatu; aitzitik, egindako aurkikuntzak hedatzearen garrantzia jabetu zen, eta hitzaldi eta argitalpenetan lan pedagogikoa egiteari eman zion lehentasuna. Humboldtek sekulako garrantzia izan zuen, gai askori buruzko ikerketak egin zituelako, aurreratua izan zelako, eta beste pentsalari askorengan izan zuelako eragina: Darwin, Thoreau, Muir eta beste askorengan, hain zuzen ere.

Arlo zientifikoan egin zuen lana ukaezina da, baina bere abiapuntua ere interesgarria da: arrazoia eta sentimendua elkarren ondoan jartzen zituen, eta poesiak eta arteak bat egiten zuten zientziarekin eta politikarekin. Abiapuntu horrek agerian jartzen du naturarekin harremanetan egoteko dugun moduak garrantzi handia duela: tresna zientifikoak erabiltzen ditugu natura aztertu eta ezagutzeko, baina errespetuz eta maitasunez jokatzeko moduak, eta neurketak eta datuak erabiltzen ditugu, begirada artistikoa eta erabat gizatiartua aplikatuz. Sustrai zientifiko-humanista horri esker, oso-osorik ulertzen da jasangarritasunaren eta kulturaren arteko lotura.

Azken batean, Humboldtek naturaren eta kulturaren arteko elkargunea nabarmendu nahi izan zuen. Hain zuzen ere, begirada hori garatuko da txosten honetan; izan ere, guztiz begirada egokia izaten jarraitzen du kulturaren eta jasangarritasunaren arteko harremanari buruzko analisis egiterakoan.

1.2 Garapen jasangarriaren ondorioak

Hasieran, garapenaren kontzeptua biologiarekin lotuta egon zen, eta heldutasuneranzko prozesuari erreferentzia eginez erabiltzen zen. Gero, Bigarren Mundu Gerraren ostean, ekonomiari aplikatu zitzaion, eta herrialde industrializatuen hazkunde ekonomikoaren ereduarekin identifikatu zen. Hasieran uste zen baliabideak mugatuak zirela, baina, 60ko hamarkadan, beste kontzientzia bat piztu zen: garapen industrializatua ingurumen arloko arazoak sorrarazten ari zela, alegia. Ideia horri justizia sozialaren ideia ere gehitu zitzaion. Ingurumena azkar ari zenez hondatzen, NBEren Batzar Nagusiak Lurraren Mundu Ituna onartu zuen 1982an, eta, hurrengo urtean, Ingurumen eta Garapenerako Mundu Batzordea sortu zuen. Batzordearen lanaren emaitza “Gure etorkizun komuna” izeneko txostena da, **Brundtland Txostena** izenez ere ezagutzen dena eta 1987an aurkeztu zena Batzar Nagusiaren aurrean. Garapen jasangarriaren kontzeptua, gaur egun duen adieran, abiapuntu horretatik joan da osatzen.

Brundtland Txostenaren arabera, hau da garapen jasangarria: “gaur egungo beharrianak asetzeko gai den garapena, etorkizuneko belaunaldien beharrianak asetzeko gaitasuna kolokan jarri gabe”. Nazioartean dagoeneko onartuta dagoen definizio horrek hiru dimentsio biltzen ditu: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. Hala ere, ahots kritikoek oximoron gisa sailkatzen dute; izan ere, hazkundera mugagabea bada, nekez izango da jasangarria. Era berean, definizioaren edukia asmo txarrez moldatu izan da batzuetan.

Garapen jasangarriak ahalegin adostuak eskatzen ditu, pertsonen eta planetaren etorkizun inklusibo, jasangarri eta erresilientea eraiki ahal izateko. Mundu mailako erronkarik handienetakoa da, eta, helburu hori lortzeko estrategiaren barruan, funtsezko hiru elementu harmonizatu behar dira: hazkunde ekonomikoa, gizarte-inklusioa eta ingurumenaren babesa. Modu horretan, jasangarritasunaren

kontzeptua elkarren artean lotutako ardatz hirukoitz baten arabera artikulatzen eta analizatzen da. Ardatz horretan, elementu guztiak dira funtsezkoak bake unibertuala eta justiziarako sarbidea planteatzeko orduan. Ingurumena sustatu, babestu eta bultzatzea baino askoz nozio zabalagoa da, eta pobreziarekin eta gizarte-bazterketarekin (hau da: desparekotasunaren inguruko erronka handiekin) erlazionatutako alderdi garrantzitsuak biltzen ditu.

Illo horretan, pobrezia (bere forma eta dimentsio guztietan) desagerraraztea funtsezko baldintza da garapen jasangarria lortzeko bidean. Hazkunde ekonomiko jasangarri, inklusibo eta bidezkoa sustatu nahi da; horri esker, aukera berriak izango dira, desparekotasunak murriztuko dira, oinarritzko bizi-mailak hobetuko dira, garapen sozial bidezko eta inklusibo sustatuko da, eta baliabide naturalen eta ekosistemen antolamendu integratu eta jasangarria bultzatuko da. Planteamendu hori ikuspegi iraunkor batean dago oinarrituta, epe luzekoa eta integrala.

Iraunkortasunaren kontzeptua onartzeak maila guztietan dauzka ondorioak: arlo politiko eta teknikoetatik hasi, eta maila sozial eta pertsonaleraino. Gainera, horren bitartez, gaur egungo kontsumo-ereduen eta bizimoduaren inguruko jarrerak aldatu beharko dira.

1.3 Kultura, garapen jasangarriko mekanismo gisa

Kulturaren eta garapenaren arteko loturak kultur industriaren aurrerapenean du sorburua, bai eta kultura ikuspuntu ekonomikotik ulertzean ere. Mirallosek¹ dioen moduan, loturak osatu dira kulturaren, aurrerabidearen, garapenaren eta jasangarritasunaren kontzeptuen artean, hurrenkera horretan. Prozesu hori XX. mendearen erdialdean hasi zen, eta zenbait topaketatan mamitu zen; esate betaroko, kultur politikei buruzko gobernu arteko “Mondiacult” hitzaldian (UNESCOk

¹ Kultura, garapenerako faktore izatetik jasangarritasunaren zutabe izatera, Kulturaren Agenda 21 - Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuen (HTGB) Kultur Batzordea, 2014.

antolatua 1982an), non lehen aldiz aipatu baitzen garapenaren kultur dimentsioaren ideia. Ondoren, 90eko hamarkadan, kontzeptu horrek zentraltasuna izan zuen UNESCOren ekintza-planetan, topaketetan eta adierazpenetan. Modu horretan, sendotu egiten da kulturak garapenerako faktore gisa duen potentzialaren ideia.

Milurteko berriarekin, kulturaren eta jasangarritasunaren kontzeptuak lotzeko beharrezkoak aitortzerakoan, beste urrats bat eman zen; izan ere, giza sistemen, sistema naturalen eta sistema kulturalen arteko interdependentziaren ideia nabarmendu zen. 2001ean, Jon Hawkes ikerlari eta aktibista australiarrek laugarren zutabe bat gehitu zion aurreko atalean deskribatutako jasangarritasun hirukoitzaren ereduari (ingurumena, ekonomia eta gizartea): kultura. “The Fourth Pillar of Sustainability. Culture’s Essential Role in Public Planning” izenburupean idatzi zuen liburua erreferentziatzen hartzen da tokiko kultur politiken arloan. Ikuspuntu horretatik, ezin da garapen jasangarriaz hitz egin, kultur garapenik ez badago. Agenda 21 izan zen hirien eta tokiko gobernuen kultur garapenerako konpromisoaren oinarriak ezartzearen aldeko apustua egin zuen lehengo dokumentua, mundu osorako bokazioarekin.

Aurrekari horrekin eta definizio operatibo bat finkatzeko asmoz, kulturatzat hartuko dira zenbait jarduerak, kontsumitu edo ekoiztu daitezkeenak, eta inplikaturako agenteengan eragina dutenak. Kulturaren, artearen edota sormenaren inguruko jardueretan parte hartzearekin dauka harremana, bai kultur kontsumoko ohiturei dagokienez, eta bai kultur ekoizpenarenei dagokienez, jardun artistiko edo kultural amateurretatik eta kultur elkarteetako borondatezko jardunetatik abiatuta. Modu horretan, gaur egungo kultura aztertu daiteke, soilik ondare-herentziari, hizkuntzari, ahozko tradizioari, tradizio espiritualari eta abarri lotuta dauden elementu ukiezinez mugatutako horizonterik izan gabe.

Era berean, kultura gizartea eraldatzeko tresna da, eta, hedaturaz, garapen jasangarriko tresna. Hau da: garapen jasangarriak bere baitan hartzen badu gizarte-inklusioko berrantolaketa helburua, ezin du albo batera utzi balio kulturala faktore erabakigarria dela berdintasunaren arloan.

Hain zuzen ere, garapenaren inguruko iritzi kulturaletan, foku nagusia jasangarritasun sozialaren aterkipean biltzen da. Ondorioz, dimentsio kulturala albo batera utzi zen, dimentsio sozialaren menpean zegoelako; eta, hala ere, zutabe autonomoa izan behar luke eta izan behar du. Hori horrela, ez gara ari desparekotasun sozialaz, baizik eta desparekotasun kulturalaz.

Desparekotasun kulturala ‘balio kultural’ handiagoa edo txikiagoa izatearen ondorioa da. Balio kulturala sorrarazia edo kontsumitua izan daiteke, eta, aldi berean, aldaketa-efektua dakar. Aldaketa-efektu hori faktore hauen bitartez gertatzen da: ezagutzaren jabetza; jabetza eta erabakimena; errealizazio pertsonala; identitate soziala sendotzea; eta lotura sozialak sortzeko gaitasuna. Hau da: jasangarritasun kulturalaz ari garenean, jakintzat ematen dugu horrek jasangarritasunaren eta diseinu jasangarriaren inguruan jardutea ekarriko duela, kulturak duen balioaren aitortzat abiatuta; betiere, kultura hartuta ingurune fisiko, natural eta eraikia (ondarea, eraikinak, biodibertsitatea, baliabide naturalak eta abar) eta ingurune soziala (bizimoduak, bizikidetzak, tokiko ezagutza, ospakizunak, mitoak, sinboloak eta abar) ezaugarritzen dituen agente gisa. Baina nabarmendu beharra dago horiek subjektibotasun kolektiboko objektuak baino ez direla, eta, aldiz, kulturak subjektibotasun indibidualko adierazpenak bildu nahi dituela: sormena, dibertsitatea eta adierazpen askatasuna, finean.

Hori dela-eta, jasangarritasunak ez du soilik aitortu behar nola eratu duen kulturak ingurune fisiko eta soziala eraginkortasunaren aurreneko printzipio gisa, aurretik existitzen dena aprobetxatzen baitu eta ikasitakoaren gainean ikasten baitu ; aitzitik, batez ere, edozein pertsona edo kolektiboren adierazpen askatasuna bermatu behar du, edozein formatutan; eta, era berean, kultura, kulturaren adierazpen guztiak, informazioa eta baliabideak erabiltzeko aukera unibertsala bermatu behar du. Beste modu batean esanda, ulertzen du gauza berriak ez direla ezerezaren gainean eraiki behar, baizik eta beren esparru kulturalaren arabera testuingurua eman behar zaiela hiri edota lurralde bakoitzak bere moduak ditu, dagoeneko ikasita dituenak ; eta hori, ez soilik subjektibotasunaren adierazpenak aitortuz, ezpada eredu kolektibo, indibidual... berriak sustatuz.

2 Garapen jasangarria, agenda politikoan

Kulturak gero eta zeresan handiagoa dauka garapen jasangarrira bideratutako proposamen politikoetan. Hona hemen nazioarteko erreferentzia nagusiak, laburbilduta.

2.1 2030 Agenda

Maila globalean, erreferentzia nagusiak **Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)** dira, NBEren Batzar Nagusiak 2015eko irailaren 25ean onartutakoak 2030 Agendaren barruan (pertsonek, planetaren eta oparotasunaren aldeko plana). Helburu horien berezitasuna da herrialde guztiei eskatzen diela oparotasuna sustatzeko neurriak hartzeko, edozein dela ere euren aberastasun-maila. Eta, aldi berean, planeta babesten dute. Onartzen dute pobrezia desagerrarazteko ekimenak hazkunde ekonomikoaren aldeko estrategiekin batera garatu behar direla, eta estrategia horiek zenbait beharrezko sozial ere jorratu behar dituztela. Aipatutako helburuen erronka nagusiek bake unibertsala eta justiziarako eskubidea sendotu nahi dituzte.

17 helburu planteatu ziren, integratutako 169 xede banaezin zituztenak. Xede horiek modu orokorrean biltzen dituzte esparru ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa, eta aitortzen dute, etorkizun jasangarria lortzeko bidean, pobrezia desagerraraztea dela erronkarik handiena. GJHen asmoak hauek dira: pobrezia bere adierazpen guztietan desagerraraztea, desperekotasuna murriztea eta klima aldaketaren aurka aritzea. Eta, aldi berean, “inor ez dela atzean geratuko” bermatzea. “Gida unibertsal, zeharkako, integratu, banaezin eta eraldatzailea” da, datozen 15 urteotan ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloko garapen-programak bideratuko dituen edozein tokitan.

Azken batean, 2030 Agenda garapen jasangarriaren hiru dimentsiotan oinarritzen da: ekonomia, gizartea eta ingurumena, eta ez du kultura gehitzen laugarren dimentsio gisa. Kultura 169 xedeetako 4tan baino ez da agertzen aipatuta, modu orokorrean agertu ere. Era berean, 230 adierazleetatik, soilik batek aipatzen du berariaz kultur esparrua.

Gainera, kulturak 2030 Agendan duen agerpen laburrak punta-puntako balio gisa nabarmentzen du ondarea, baina albo batera uzten ditu sorkuntza, produkzioa, demokrazia kulturala, partaidetza, dibertsitatea eta abar. Bazterrean uzten ditu, orobat, kulturak beste esparruekin dauzkan sinergiak, eta, beraz, ez da garapenerako eragile gisa ulertzen.

Alabaina, 2030 Agendak kulturaren arloan duen gabeziaren ondorioz, lan handia egin izan da aldagai hori jasangarritasunari buruzko diskurtsoetan sartzeko.

2030 Agendak kulturari egiten dizkion erreferentzia nagusiekin bat etorritz (eta, bereziki, 11. helburuko 11.4 xedearekin bat etorritz: “Munduko ondare natural eta kulturala babestu eta zaintzeko ahaleginak handitzea”), UNESCOk **Hiri garapenerako kulturari buruzko Munduko Txostena** (2017) prestatu zuen, eta hirietako aldaketaren kudeaketari buruzko hausnarketa proposatu zuen, kultura erabilita garapenerako eragile gisa. Gainera, ildo zehatzak proposatzen ditu, babesa emateko maila nazionalen eta tokian tokiko mailan erabakiak hartzen dituztenei, adituei eta hiri-garapenerako politiketan eta estrategietan inplikaturata dauden interesdunei.

Txostenak Etxebizitza eta Hiri Garapen Jasangarriari buruzko Nazio Batuen Hirugarren Konferentzian onartutako Agenda Berriko eztabaidei ere erreparatzen die (Hábitat III, 2016). Txostenak ideia eta froga zehatz ugari ematen ditu ehunka kasuren ikerketak, eta, modu horretan, agerian geratzen da kulturak nolako indarra duen hiri inklusibo, sortzaile eta jasangarriagoak eraikitzeko baliabide estrategiko gisa. Agenda 21en ildoan, UNESCOk kultura hiri-politiketan integrazteko proposamena egiten du, hiri-garapen jasangarria sustatzeko eta, modu horretan, hiri gizatiarrago eta inklusiboagoak lortzeko asmoz. Maila pragmatikoan, Txostena beharrian jakin batengatik sortu zen: 2030 Agenda inplementatzeko egiten diren nazioarteko konferentzia handietan kulturari buruzko erreferentziak egiten jarraitzeko asmoz, alegia.

EAEn, Eusko Jaurlaritzak 2030 Agendaren inguruan daukan jarrera 2018ko apirilean aurkeztutako **Euskadi Basque Country 2030 Agenda** dokumentuan dago jasota. Agiri horrek islatzen du Gobernu Programa zein puntutaraino dagoen bat eginda eta zenbaterainoko ekarpena egiten dion Garapen Jasangarriari buruzko gida unibertsal horri. Aurreneko Euskadi Basque Country 2030 Agenda da, eta 2016–2020 denbora-tartea hartzen du bere baitan. 2030 Agendako Garapenerako 17 Helburuak eta 100 Xede lotzen ditu Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Programak hartutako 93 Konpromisorekin, Planifikaziorako 80 Tresnarekin, 19 Ekimen Legegilerekin eta 50 Adierazlerekin. Ahalegin horren bitartez, Euskadiko politika publikoak Agenda unibertsal honekin lerrokatu nahi dira, eta agerian jarri nahi da nolako ekarpena egiten duen Euskadik 2030 Agenda inplementatzeko eta Garapen Jasangarriaren Helburuak lortzeko.

2.2 Agenda 21

Agenda 21ek tokiko esparrura darama jasangarritasunaren ideia. Garapen jasangarriaren printzipioetan oinarritutako prozesu gisa eratzen da, eta justizia soziala, ekonomia jasangarria, inguru urbanoa eta kapital natural iraunkorra uztartzen ditu, bizi-kalitatea hobetzeko aukera emango duen oreka lortu ahal izateko.

Ingurumenari eta Garapen Jasangarriari buruzko Nazio Batuen Konferentzian du jatorria (Rio de Janeiroko “Lurraren Gailurra”, 1992). “XXI. mendeko garapen jasangarriko Programa Globala” delakotik sortu zen. Zehazki, tokiko agintariek garapen jasangarrian duten protagonismoa aitortzen du programa horrek.

Tokiko Agenda 21 udalerrietako ingurumenaren etengabeko hobekuntzarantz joateko konpromisoa da, Tokiko Ekintza Plan baten bitartez adierazten dena eta udal politiketan helburu eta estrategia komun batzuk zehazten dituen, denak ere printzipio hauetan oinarrituta:

- Jasangarritasunaren integrazioa udal kudeaketaren eremu guztietan, zeharkako proiektu global baten bitartez.
- Jarraipena, etorkizunerako proiektua delako eta epe luzerako ikuspegia duelako.
- Eragile sozial, ekonomiko eta instituzional guztien parte-hartzea eta lankidetzaren mobilizazioa.

Kulturaren Agenda 21 delakoari dagokionez, Kulturaren Munduko lehen Bilera Publikoan (Porto Alegre, 2002), tokiko kultur politikak bideratzeko dokumentu bat prestatzeko ideia sortu zen. Dokumentu horren azken bertsioa 2004an onartu zen, Bartzelonan.

Horren bitartez, hiriek eta herritarrek kultura beren udalerrien garapenerako zutabe gisa ikusteko aukera dute. 67 artikuluz osatuta dago, hiru puntu nagusitan bananduta: printzipioak, konpromisoak eta gomendioak. Agiriaren edukiak balio unibertsala dauka.

Kulturak zenbait udalerritan dituen arazo, erronka eta desafio posibleak biltzen eta planteatzen dituen esparru-dokumentu nagusia da. Kultura proposatzen du gizartearen eta politika publikoen oinarritzko eta zeharkako ardatz gisa, eta ardatz hori, aldi berean, funtsezko hiru kontzeptutan oinarritzen du: adierazkortasuna, sarbidea eta parte-hartzea.

Hiru kontzeptu horiek garapen jasangarriaren dimentsio kulturean edo jasangarritasun kulturean dituzte sustraiak: garapen pertsonalari, adierazpen askatasunari eta kulturara sartzeko eskubide unibertsalari egiten diete erreferentzia, adierazle demokratiko gisa. Zehatzago esanda, Agendak giza garapen jasangarriaren oinarritzko hiru puntu jorratzen ditu: Kultura eta giza eskubideak, Kultura eta gobernantza, Jasangarritasun kulturala eta lurraldea, Kultura eta gizarte inklusioa, eta Kultura eta ekonomia.

Batez ere, kulturaren inguruko politika publikoen gida-tresna da: funtsezkoa da kultura ulertzeko, ez soilik elementu instrumental gisa, baizik eta epe luzerako aukeren printzipio sortzaile gisa.

Gainera, Jon Hawkesen arabera, tokiko jarduera kultural jasangarriaren funtsezko ezaugarrietako bat da tokiko komunitateak direla jarduera horiek abiarazten, diseinatzen, kontrolatzen, inplementatzen eta gordetzen dituztenak. Hori dela-eta, Agendaren asmoa tokiko politikak sendotzea da, parte-hartzearen eta herritartasunaren bitartez tokiko gobernantzaren eremu berriak finkatuz.

Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuen (HTGB) munduko antolakundeak bere gain hartu zuen Agenda koordinatzeko lana, eta, ondoren, HTGBko Kultur Batzordeak helburu hau hartu zuen 2011.-2013. urteetarako: “Kultura garapen jasangarriaren laugarren zutabe gisa sustatzea, kulturaren Agenda 21 nazioartean hedatuz eta tokian-tokian inplementatuz”.

Nazioarteko zenbait kultur erakundek (tartean zeuden, besteak beste, HTGB, IFACCA edota Cultura Action Europe CAE) ahalegin koordinatua egin zuten kulturari buruzko helburu zehatzen bat sar zedin GJHetan edo helburu horiek arlo kulturalak har zitzaten, baina kulturak presentzia mugatua izan du azkenean. 2013. eta 2015.

urteen artean, “**Nahi dugun etorkizunak kultura ere hartzen du barne**” kanpainaren emaitza gisa, lau dokumentu prestatu eta argitaratu ziren: manifestu bat, 2030 Agendan kultura sartzeari buruzko deklarazio bat, GJHen arlo kulturalak neurtzeko adierazle posibleei buruzko proposamen bat, eta amaierako komunikatu bat.

Kulturaren Agenda 21en garrantzia eta balio sinbolikoa tokiko ekintza planak aplikatzen ari diren hirien eta tokiko gobernuen kopuru gero eta handiagoan aurki daiteke. Nabarmenezko modukoa da nolako eragina duen politiketan, gida praktikoa eta orientazioak eskaintzen baitizkie tokiko eragileei; esate baterako, 2018ko maiatzean argitaratutako **Kultura, Garapen Jasangarriaren Helburuetan: Tokiko Ekintzarako Gida** dokumentua.

2.3 Europako Kultur Agenda berria (2018)

Europako liderrek gizarte kohesionatuak eraikitzeke eta Europar Batasunaren ikuspegi erakargarria emateko gonbita egin zuten, kulturaren eta hezkuntzaren bitartez; bada, **Europako Kultur Agenda** berriak gonbidapen horri erantzuten dio. Kulturak arrakala hori estaltzen lagundu dezake; izan ere, komunitate-sentimendua sortzen gehien laguntzen duten faktoreetako bat da.

Dokumentu hori Europako Batzordeko kideek prestatu dute, eta hiru helburu estrategiko ditu, dimentsio sozial, ekonomiko eta kanpo-dimentsio banarekin. Lehenengo eta behin, dimentsio sozialak balioko luke kulturak eta dibertsitate kulturalak ongizaterako eta kohesio sozialerako duten potentzialaz baliatzeko; dimentsio ekonomikoak balioko luke kulturean oinarritutako sormenaren babes eta laguntza gisa, hezkuntzaren eta berrikuntzaren esparruetan, eta enpleguari eta hazkundeari dagokionez; eta, azkenik, kanpo-dimentsioa nazioarteko kultur harremanak eta nazioarteko lankidetzaren sendotzeko ahaleginen oinarritzen da.

Europako Agendaren planteamenduak agerian uzten du kulturak nola xurgatu dituen garapen jasangarriaren logikak. “Jasangarria” terminoa zeharka ageri da agendan. Oro har, garapen sozial eta ekonomiko jasangarriko ereduak dago lotuta, eta, zehatzago esanda, ekoizpen eta banaketa ereduak bilaketari, enpleguari, lurralde mailako hazkunde eta berrikuntza prozesuei, turismo kulturala garatzeko formulak, ondareari, eta hiri zein landa arloak biziberritzeari.

3_ Jasangarritasunak kulturaren duen presentziari buruzko irakurketak


Jasangarritasunari buruzko kontakizun eta politiketan dimentsio kulturala sartzeko beharrezkoa planteatu da lehenago. Erakargarria da ulertzea kontrako prozesua gertatu dela, ia erabat modu organikoan: kultur politiken arloan, gero eta gehiago dira jasangarritasunaren ideia barneratzen duten diskurtsoak eta agendak.

Formalizazioa baino haratago joanda, gero eta ardua handiagoa dago jasangarritasunari buruz eta jasangarritasunak kulturaren duen sustraitzeari buruz. Jasangarritasunak kultur politikak nola blaitu dituen ulertu ahal izateko, irakurketa posibleetako bat begirada bikoitza aplikatzea da: garapenarena, bere adar posible guztiekin (soziala, ekonomikoa, lurralde arlokoa, ingurumenekoa, ondare mailakoa eta abar); eta sistemikoa, “ekologikoa” (kulturaren eragiten duten agenteen arteko harremanen eta loturen zentzuan), ikuspegi arlokoa, estrategiak eta agendak planifikatu eta ebaluatzeari dagokienez.



3.1 Kultur garapenaren ikuspuntutik

Kapitulu honetan, kultur garapenaren ideari aplika dakizkiokeen begiradak edo perspektibak deskribatzen dira, ondorengo grafikoan laburbiltzen den moduan.



Ikuspegi soziala

Irakurketa honen abiapuntua da kultura ondasun publikoa dela eta etekinak ematen dizkiela herritarrei, eta, beraz, dakarren garapen soziala kultur ekintzaren funtsezko elementuetako bat dela. Kulturaren eta sorkuntzaren prozesuek lotura sozial berriak sorrarazteko gaitasuna dute, eta, ondorioz, gizarte inklusibo, kohesionatu eta askotarikoagoak eratzen ditu. Garapenak ezin du jasangarria izan alderdi sozial hori gabe, eta zutabe horren euskarrietako bat kultura da.

Parte-hartze kulturala herritartasun beteko jarduna da. Ekintza kolektiboak talde bateko kide izatearen sentimendua sortzen laguntzen du, eta sareak eta konplizitateak sendotzen ere laguntzen du, esperientziak partekatzearen bitartez. Eta kulturak ekintza kolektiboa ahalbidetzeko testuinguru paregabea eskaintzen du. Ikuspuntu hori beste beharrian batera eraman daiteke: garapen jasangarria proiektu bateratu gisa eta egiazko interesa duen proiektu gisa ulertzearen beharrianera. Proiektu horrek honakoak sorrarazten ditu:

Gizarte inklusiboagoak. Kultur jardunek gizarte-bazterketa murrizten laguntzen duten plataformak eskaintzen dituzte; izan ere, sare sozial inklusiboak sendotzeko balio duten harreman- eta ezagutza-espazioak sorrarazten dituzte.

Gizarte kohesionatuagoak. Kultur ekintza kolektiboak talde bateko kide izatearen sentimendua sendotzen du. Esperientziak partekatzearen ondorioz, sareak eta konplizitateak osatzen dira, eta isolamendu sozialerako joerak konpentsatzen dira.

Gizarte askotarikoagoak. Kultura aniztasunarekiko errespetutik eraikitako bidezko garapenaren eragilea da. Alde horretatik, kultur ekintza jasangarria izango da, soilik egungo dibertsitate soziala islatzeko gai bada.

Ikuspegi ekonomikoa

Eredu ekonomikoa modu honetan definitzen da: baliabideen ekoizpenari, erabilerari eta kudeaketari lotutako jardunak eta esanahiak. Jasangarria izateko, baliabideak erabiltzeaz gain, erantzukizun kulturala behar da: oinarritzat dituen balioak aztertu eta bere inguruko baliabideak aintzat hartu behar ditu. Ekonomiak inguruko baliabideetara egokitu behar du, hori baita bere legitimitatearen eta dinamismoaren iturri.

Ekonomia jasangarria. Edozein kultur proiektu ekonomikoki bideragarria izateko, ez da behar-beharrezkoa dena baino baliabide gehiago konprometitu behar. Inguruari abantaila ekonomikoak emateak esan nahi du enplegua eta lehiakortasuna sorrarazten direla, ekitate sozial handiagoa bermatzeko asmoz. Ekonomiak berehalako etekinaren mugak gainditu behar ditu, eta epe luzeko ondorioetan pentsatu behar du, ingurumen eta kultur arloko herentzia gisa. Ekonomia sozialak eta kooperatibismoak lan-ildo eredugarriak zehazten dituzte etorkizun jasangarri hori ardazteko.

Enplegu jasangarria. Kultur proiektuek beren inguruko gizarteari eta lan-munduari egiten dioten ekarpena da. Kalitatearen eta balio erantsiaren arloan lan-merkatua sendotzeko egiten duen ekarpena garrantzitsua da inguruko garapen jasangarriko. Kalitatezko lan-aukerak sortu behar dira, lan-baldintzei eta aukera-berdintasunari dagokienez.

Kultur eta sorkuntza arloko industria jasangarriak. Etengabeko sorkuntza- eta berrasmate-esparruak dira. Egoera bakoitzaren beharizanei egin behar diete aurre, eta, ondorioz, berrikuntzaren alde egin behar dute produkzio-prozesuetan, antolakuntzan eta baliabideen kudeaketan. Eragile garrantzitsuak izan daitezke jasangarritasunarekiko sentsibilizazio-kultura sustatu eta hedatzeko; izan ere, planteamendu horretatik pentsatutako kultur proiektuak eta jarduerak eredugarritzat har daitezke.

Kultur kontsumoa. Kultur kontsumoaren ikuspuntutik, garapen jasangarriak hausnarketa sakona pizten du eskaintzaren eta eskariaren ereduari buruz eta jasangarritasunaren printzipioen bitartez lortu nahi den ereduari buruz.

Ekoizpen eta programazio ereduari eragiten dio, bai eta sustatu nahi diren kultur kontsumo eta ohituren ereduari ere. Ildo horretan, sektore pribatuaren zein publikoaren erantzukizuna da.

Lurralde-ikuspegia

Lurraldeak kultur proiektuen eragin-eremuari egiten dio erreferentzia, eta inguruaren eta kultur jardueraren arteko elkarreaginaren emaitza da. 90eko hamarkadan, kultura rol garrantzitsua izaten hasi zen garapen komunitarioari dagokionez eta hirien biziberritzeari dagokionez, eta zeresan handia hartu zuen hiri-politikan. Ondorioz, hiri-plangintza berriaren ardatz nagusi gisa eratu da; izan ere, hiri gizatiarrago eta inklusiboagoak sustatzen ditu, eta inguruaren kalitatea hobetzen laguntzen du. Faktore kulturalak ez badaude esplizituki sartuta lurralde-plangintzako prozesuetan, inpaktu negatiboak izaten dira ondarearen zainketan, sormena oztopatzen da, homogeneizazioa bultzatzen da eta bitziza soziokulturalean aktiboki parte hartzeko aukerak mugatzen dira. Azken batean, kultur proiektuek hiri-eraldaketa sendotzen dute, zentraltasun berriak sorrarazten dituzte, eta inguruarekiko errespetuzkoak diren balioak hobeto integratzen laguntzen dute.

Zentraltasun berriak. Espazio sinbolikoak dira, kultur jarduera erakartzen dute (ekipamenduak, proiektuak, sormena) eta inguru hobetzen laguntzen dute. Zentro horiek bertako bizilagunen unibertso sinbolikoa aldatzen dute, balio ematen diote inguruari, eta ehundura soziala sendotzen dute.

Hirien biziberritzea. Zenbait gune urbanotan, kultur zerbitzuak ezartzeak edo arlo horretako proiektuak garatzeak eraldaketa eragin dezake, hondatutako inguru edota gune baztertuetakoz bizi-kalitatea hobetuta eta inguru horiek biziberrituta. Espazio publikoa berreskuratzen da, gizarteratzeko toki gisa; eta, era berean, auzoak hobeto lotzen dira inguruarekin. Hirien biziberritze integratua aurrekari kultural batetik abiatzen da; eta, hain zuzen ere, aurrekari horren bitartez, tokiari zentzua ematen dioten pertsonen eta testuinguruaren artean lotutako ehundura gisa ulertzen da hiria.

Antolamendu ekologikoa. Kultura, definizioz, balioak transmititzeko bidea da. Ingurumena errespetatzeko irizpide berriak emango dituen eta estrategikoki ekologikoa izango den antolamendua ezarri behar da. Filosofia hori kultur jardunetan sartzeak on egin diezaioke hainbat gauzari: ingurua errespetatzeko logiken asimilazioari, jarduera ekonomikoen antolamenduari, lurraldearen eta bertako baliabideen erabilera arrazionalari, lurralde-bokazioa eta lurraldeak ekoizpen arloan dituen potentzialtasunak uztartzeari, eta, jakina, arkitektura eta plangintza urbano jasangarrietan pentsatzeari.

Ingurumen-ikuspegia

Inguru fisikoaren ezagutzari lotutako kultur jarduerak ingurumenaren jasangarritasunaren aldeko ekimenak sorraraz ditzake. Ondorioz, aisialdi-esparru handiak (bidaiak, natura, kultur jarduera) birplanteatu egiten dira jasangarritasunaren arlotik. Gure aisialdia erantzukizunetik pentsatu behar da.

Naturarekiko lotura. Kulturak funtsezko zeresana dauka paisaiaren berrinterpretazioan eta naturarekiko identifikazio-prozesuetan. Ingurune naturala zaindu ahal izateko, kultura/natura binomioa elkarrekin zorroztzeko harreman gisa ulertu behar da. Ingurune naturalari lotutako kultur jarduerak haren gaineko balorazioa ahalbidetzen dute, eta, ondorioz, ingurunea zaintzen eta ezagutzen laguntzen dute.

Turismo kulturala. Turismo kulturalarekiko interesa eta eskaria goraka doala ukazina da, eta, ondorioz, betidanik beste turismo-modalitate batzuetan zentratuta zeuden helmugetako askok beren baliabideak birbalorizatu dituzte eta baliabide horiek dinamizatzeke eta sustatzeko ereduak diseinatu dituzte, bisitariak erakartzeko indargune gisa. Turismo kulturalaren goraldia bat dator hirietako inguru fisiko eta soziala errespetatzeko duten ereduak aurkitzeko beharrezanekin. Turismo kulturalak jasangarritasunera bideratutako paradigma berria planteatzen du. Eredu horren alde egiteak ingurua zaindu, berreskuratu eta kontserbatzeko ahalegina eskatzen du. Inguru naturalak berez dira erakargarriak turistikoki, eta gauza bera gertatzen da ingurumena errespetatzen duten hiri edo udalerriekin ere.

Sormenaren/ezagutzaren ikuspegia

Pertsonen garapen autonomoa, emantzipazioa, beren ikuspegi kritikoaren sustapena, ezagutzarako aukera edota sormen arloko potentzialtasunak ezin dira garapen jasangarritik banandu. Ongizatea sustatu nahi da errealizazio pertsonal gisa, gaitasun kulturalen bitartez herritartasun aktiboa bultzatzeko asmoz. Ikuspegi horretatik, kultur garapena sorkuntza-adierazpenen aukerak handitzeko eta ezagutzetara heltzeko prozesu gisa ulertzen da.

Sormena sustatzea. Gaitasun sortzailea gizakiari atxikitako zerbait da, eta gaitasun hori sustatzeko balioko duten plataformak garatu behar dira. Edozein esparrutan, sorkuntza pizteko estrategiak neurtzea, ebaluatzea eta proposatzea dira aurrez eman beharreko urratsak, jasangarritasun-eredu berriak proposatzeko orduan. Sorkuntza sustatzeak esan nahi du talentua eta potentzialtasun artistikoak, berritzaileak, originalak eta abar aprobetxatzeko baliabideak bilatu behar direla, eta baliabide horiek onura ekarri behar diotela populazio osoari.

Hezkuntza eta ezagutza. Gaitasunak eskuratu eta ikastea da nor bere buruari eta bere inguruari aurre egiteko gakoa. Hezkuntza da inguruari buruzko ezagutza asimilatzeke pasabidea, bai eta pertsonen inguruko esparru sozial, ekonomiko eta kulturala interpretatzeko gaitasuna garatzeko pasabidea ere. Hezkuntza funtsezko tresna da gaitasun kritikoa sustatzeko eta, modu horretan, ingurua bera hobetzeko.

Ondarearen ikuspegia

Kulturalki jasangarria den jardun batek bere testuinguruko ondasunak deskubritzen eta erabiltzen ditu, testuinguru horretako ohiturei eta gaitasunei balioa emanez eta testuinguruaz birjabetuz, esku-hartzerik ez egiteko erabakia hartzeraino. Jasangarritasunari buruzko ideia arlo ukiezina zaintzearen esparruan ere sartu da, ikuspuntu kulturala zeharkatuta. Ondare immaterialaren babesa komunitateen garapen sozial inklusiboaren sendotzeko, ingurumena eta ekonomia garatzeko, eta bakea eta segurtasuna bermatzeko mekanismo gisa ulertu daiteke.

Denboran zehar pilotutako ezagutzak eta praktikak baliabide naturalak modu jasangarrian erabiltzeko baliatu izan dira, bai eta klima-aldaketaren gaineko inaktuak minimizatzeke ere. Modu horretan, kultur ondare immaterialak biodibertsitatea babesten lagundu dezake eta ingurumen arloko iraunkortasunaren alde egin dezake. Komunitateko kide izatearen sentimendua sustatzen duten herri-kultura, tradizioak eta ezagutzak kontserbatzea da esku-hartze mota horren helburua. Aldi berean, identitate soziala eratzeke eta gizarte-eragileen arteko loturak osatzeko estrategia gisa planteatu behar da. Beste bertute askoren artean, identitate morala sortzeak esan nahi du inguru hurbila estimuz tratatu behar dela eta bere bizitasuna zaindu behar dela.

Ondarea berreskuratzea. Ondarearen berreskurapena inguru fisikoa (eta, hedaturaz, inguru naturala) zaintzeari buruzko logikaren menpe dago. Sentsibilitate moral horrekin batera doazen ekimenek herritarrei aukera ematen diete beren historia ezagutzeko eta beren buruak historia horretan islatuta ikusteko, eta, aldi berean, ekimen horiek ondareari buruzko interesa sorrarazten dute kanpoko bisitarien artean. Beraz, ondarea zaintzea da leku horrekin identifikatzeko oinarrietako bat, eta, ondorioz, leku hori errespetatu eta behar bezala baloratzeko premisetako bat.

Dibertsitatea. Ekosistema askotarikoa izatearen aberastasuna da garapen jasangarriaren berezko ezaugarrietako bat. Lehenengo eta behin, aniztasun kulturalarekiko errespetua kulturartekotasunaren gako gisa ulertu daiteke, kolektibo bakoitzaren sinesmenak eta ideiak elkarrekin bizi daitezkeela pentsatzetik abiatuta; baina baita gutxiengoei emandako ordezkarietatik eta ikusgarritasunetik abiatuta ere, arrazoi erlijioso, ideologiko, generoko edo etnikoengatik. Zalantzarik gabe, dibertsitatea sustatzeko ezartzen diren mekanismoak kultur osasunaren eta garapenaren adierazle izango dira.

Komunikazioaren ikuspegia

Komunikazioa pentsamenduen, mezuen edo informazioaren trukea da, eta, definizioz, parte-hartzea eta elkarriketa eskatzen ditu. Barne hartzen ditu irrati edo telebista bezalako ohiko kanalak, zein komunikabide berriak. Ideiak eta ezagutzak adierazteke

eta partekatzeko tresna da. Identitate indibidual eta kolektiboak eratzen eta beste talde zein kultura batzuekin elkarreaginean aritzen laguntzen du, kapital soziala eraikitzen du, eta kulturen arteko elkarriketa sendotzen du.


Kultura eta komunikazioa interdependenteak dira. Kulturak komunikazioa behar du sortzeko eta partekatua izateke. Komunikazioaren edukiaren zati handi bat sorrarazteaz gain, komunikatzeko moduak eta ereduak ere osatzen ditu. Unescoren arabera², ezaugarri hauek ditu:

Adierazpen askatasuna. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako eskubidea (19. artikulua), pertsonen diskriminaziorik eta zentsurarik gabe eta modu irekian adierazteke duten gaitasunari buruzkoa. Legearen ikuspuntutik, gobernuak eta erregulazio-sistemak defendatu beharreko zerbaite da.

Internet baliatzeko eta erabiltzeko aukera. Iraultza digitalak eragin handia du garapen kultural, sozial eta ekonomikoan, eta informazioa eta ezagutza sortzeko, babesteko, zabaltzeko, baliatzeko eta erabiltzeko aukerak sorrarazi ditu. Eragin ukazina izan du informazioa eta edukiak jasotzeko orduan, eta pertsonen arteko konexiorako eta ikasketarako bide berriak ireki ditu. Ekoizpen, merkataritza, kontsumo, gobernu eta hezkuntza prozesuak eraldatu ditu. Populazio-sektore handiek erabiltzen dutenez, gizarte eta garapen arloko helburuak lortzen lagundu dezake; izan ere, informazioa eskuragarriago dago, eta hezkuntza eta trebakuntza modu bidezkoagoan baliatu daitezke. Ondorioz, herritarren parte-hartzearen irismena handiagoa izan daiteke.

3.2 Ekosistema kulturalaren ikuspegitik

Atal honetan kultur garapenari ezarri ahal zaizkion begiradak edo ikuspegiak azaltzen dira, zeinak hurrengo grafikoan laburbiltzen diren.



Gobernantza

Oro har, herritarren parte-hartzeari buruzko planteamendu estrategikoen garapen jasangarriaren eskakizunak bereganatu dituzte, eta ez dira soilik ulertzen ingurumen arloko kontzientzia pizteko balio duten mekanismo gisa, baizik eta gizarte-bazterkeriako egoerak arintzeko ere. Giza Garapenari buruzko Txostenak (2013) dioenez, 'Pertsonak beren bizitzeko forma ematen dieten ekitaldi eta prozesuetan modu esanguratsuan parte hartu ezean, giza garapen nazionalaren bideak ez dira desiragarriak ez jasangarriak izango'.

Kultur prozesuetan modu aktiboan parte hartuz gero (elkartegintzaren, boluntariotzaren, mobilizazio zibileko plataformen edo gobernu-erabakietako herritarren partaidetzarako programen bitartez), herritarrek beren eskubide eta aukeren gaineko kontzientzia handiagoa dute. Gizarte-mugimenduetan eta kultur jardueren antolakuntzan edo kudeaketan inplikatzeko interes orokorreko balio proaktiboak sorrarazten ditu. Alde horretatik, kultur jardueren jasangarritasunaren kultura sustatzen dute, beren diseinuan eta garapenean dimentsio hori kontuan hartzen dutenean.

Kulturaren esparruko gobernantzak zenbait bilaketa dakartza: alde batetik, herritarren partaidetzarako mekanismoak bilatzea; eta, bestetik, duen idiosinkrasiatik, eragile publiko eta pribatu mota guztien arteko koordinazio-ereduak bilatzea. Gobernu-mailen, sektoreen eta hirugarren sektorearen arteko koordinaziorako eta adostasunerako organoak beharrezkoak dira kultur politika jasangarriak garatu ahal izateko. Eraikuntza kolektiboko mekanismo horiek ordezkagarritasun handiagoa ematen dute eta balio demokratiko handiagoko proposamenak abiarazten laguntzen dute. Azken batean, arlo publikoa gobernantzan oinarritutako erantzunkidetasun partekatua bilakatzen dute.

Koordinazio instituzionalerako organoak. Beharrezko gaitasunak dituzten egitura administratiboak behar dira, politikak implementatu eta ebaluatu ahal izateko. Prozesu, egitura, mekanismo eta sistema politiko eta administratibo koordinatuak funtsezkoak dira kudeaketa egokia bermatu eta sustatzeko, garapenaren ikuspegitik.



Gizarte zibilaren parte-hartzea. Neurri handi batean, aniztasun eta dibertsitate kulturala politikan eta erabakimenean parte hartzeko aukeren araberakoa da. Kulturaren berezko ezaugarrietako bat da eragile ugari inplikarazten dituela; beraz, oinarri zabaleko parte-hartze prozesuak eskatzen ditu, pertsonen eta komunitateen beharizanak beteko dituzten politika eta neurri erabilgarri eta eraginkorrak formulatu eta inplementatzeko.

Plangintza eta ebaluazioa

Jasangarritasunaren kontzeptuaren erdigunea etorkizunaren ideian datza. Brundtland Txostenaren izenburuak berak ('Gure etorkizun komuna') hala ematen du aditzera. Garapen jasangarriak pertsonen eta planetaren etorkizun inklusibo, jasangarri eta erresilientea eraikitzearen alde egiten du, adostutako prozesuen bitartez.

Eraikuntza kolektiboko prozesuen konplexutasunak eta helburuen anbizioak ikuspegi zabala eta hausnarketa eskatzen dute, eta hori epe luzerako estrategia eta plangintzetan gauzatzen da. Etorkizuneko horizonte hori aintzat hartzen ez duten kultur politikak nekez izango dira jasangarriak. Are gutxiago, ebaluazio-tresnarik ez duten politiken kasuan (aurreikusitako helburuak bete ote diren aztertzeko). Jasangarritasuna kontuan hartzen duten agendak ekintza-planetan egituratzen eta hedatzen dira, eta ekintza-plan horiek begiradak, edukiak, programak eta eragileak bateratu behar dituzte, modu sistemiko eta interkonektatuan.

Plangintzarako tresnak. Tresnak eta prozesuak behar dira, lortu nahi den helburuari buruz hobeto hausnartu ahal izateko; estrategiak, planak eta programak hedatu ahal izateko; eta helburuak lortzeko behar diren baliabideak antolatzeko.

Ebaluaziorako tresnak. Adierazle-sistemen bitartez, aplikatzen diren politiken aurrerapen-maila eta egokitzapena neurtu daitezke. Alde horretatik, GJHen eta Agenda 21en esparruan, badaude garapen-maila zenbait ikuspegititik ebaluatzeko aukera ematen duten erreferentziazko eredu batzuk.

4 Estrategiak eta tresnak

Jasangarritasunaren inguruko interesa ez da berria, baina bai gero eta handiagoa. Azken bi urteotan zenbait tresna ari dira hedatzen, bai tokiko esparruan garapen jasangarriaren helburuak aplikatzeko, eta bai ekitaldiak, jarduerak eta enpresak ziurtatzeko ere.

Atal honetan, nabarmenenetako batzuk daude jasota. Hiru multzotan bildu dira: lehenengo eta behin, toki mailan garatzen ari diren plangintzarako eta ebaluaziorako tresnak; bigarrenik, jasangarritasunarekiko konpromisoa egiaztatze helburua dutenak, aitortutako ziurtagirien bitartez; hirugarrenik, kultur eraginari buruzko ebaluazioak.

Ondorengo koadro honek kapituluaren egitura laburbiltzen du.

Plangintza	Tokiko ekintza-planak eta agendak	Udalsarea 21
		Kulturaren Agenda 21
Prozesuak	Ingurumen-ziurtagiria emateko sistemak	Ingurumen-kudeaketako sistemak
		Ekitaldiak: Erronka Garbia
Ebaluazioa	Inpaktuaren ebaluazioak	Ingurumenekoa, soziala eta ekonomikoa
		Kultur inpaktua

4.1 Plangintza: Tokiko ekintza-planak eta agendak

Udalsarea21: Tokiko Jasangarritasunerako Ekintza Planak

Udalsarea 21 Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea da. Euskadiko administrazio publikoko hiru mailek osatzen dute, tokiko erakundeen (185 udalerrri) protagonismo bereziarekin. 2018an argitaratutako **Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearen ekarpena GJHei** txostenean, Euskadiko tokiko jasangarritasun-politiken egoera eta bilakaera aurkezten da. 2000. urtean aurreneko ekintza-planak abiarazi zirenetik, apurka-apurka, garapen jasangarriarekin konprometitutako gero eta udalerrri eta eskualde gehiagotan finkatu dira planok, eta beren urteroko jarraipenean eta ebaluazioan oinarritutako udal gobernantza-eredua sustatu da, kontuak emateko eta etengabe hobetzeko abiapuntu gisa.



Ikuspuntu metodologikotik, tokiko adierazleen sistemak garatu dira, eta ebaluazio-metodo horiek EAEko jasangarritasunaren aurrerapen-mailari buruzko erradiografia zehatza eskaintzen dute. Azken urteotan, tokiko jasangarritasunerako politikek sendotu egin dute beren izaera integrala, eta arlo sozial eta ekonomikoak gehitu dituzte, aurreko plan-belaunaldian presentzia txikiagoa zuten-eta.

Txostenak aztertzen du nolako ekarpena egiten dioten Euskadiko udalerriek Garapen Jasangarriaren 17 Helburuetako bakoitzari, 2030 Agendak, bere helburu eta xedeen bitartez, Euskadiko udalerrietako jasangarritasun-politiketarako planteatzen dituen erronka berriak identifikatzeko asmoz. Kulturaren ikuspuntu zehatzetik, arlo horrek GJHen esparru orokorraren barruan duen presentzia urria dela-eta, lausotuta geratzen da tokiko ekintza-planen multzoan. 11. Helburuaren (hiriak eta giza kokalekuak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea) barruko kultur ekintza zehatzak (247) ondare kulturala eta naturala babestera daude bideratuta, eta tokiko jasangarritasunaren aldeko ekintza guztien % 4 dira.

Etorkizunari begira, ekintza-plan horietan elementu sozial eta ekonomikoak txertatu diren moduan, kulturak presentzia handitu behar du, bai zeharka (beste helburu batzuk lortzeko bide gisa), eta bai modu sektorialean, GJHen moduko erreferentziazko agendek jasangarritasunaren arloan eskatzen diotena gaindituz eta beste dokumentu batzuetan oinarrituz (dokumentu horien artean dago **Euskal Adierazpena**, Europako hiri eta herrietarako bide-orri berria, 2016an Bilbon egin zen Hiri eta Herri Jasangarrien Europako 8. Biltzarreko emaitzarik garrantzitsuenetakoa).

Kulturaren Agenda 21

Hain zuzen ere, arlo kulturalak 2030 Agenda osoaren arrakastan funtsezko zeresana dutela frogatu ahal izateko, Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuen (HTGB) Kultur Batzordeak **Tokiko ekintzarako gida praktikoa** argitaratu du 2018ko maiatzean. Dokumentu horrek hainbat argudio ematen ditu, kulturak 17 GJHetako bakoitzean duen garrantziari buruz. Era berean, esparru bakoitzari buruzko orientazio praktikokoak ematen dizkie tokiko gobernuei, bai eta jardun horiek gauzatzen dituzten hiriei buruzko adibideak ere.

4. helburua: Hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa. Adibideak: Getxo eta Donostia. Udalerri horiek kulturarteko ikuspuntua txertatu dute hezkuntza arloko politika eta programetan, Europako Kontseiluaren “Intercultural Cities” programaren barruan.

8. helburua: Hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria sustatzea, baita guztientzako enplegua, enplegu produktiboa eta lan duina ere. Adibidea: Bilbo, non tokiko garapenerako estrategiek kultur azpiegituren, jardueren eta hiri-eragileen garrantzia aitortu zuten, bizi-kalitate hobearen alde egiteko eta eraldaketa sozial eta ekonomiko ahalbidetzeko. Izan ere, horrek eragin argia izan zuen enpleguari eta turismoaren erakargarritasunari dagokienez.

Kulturaren Agenda 21ek sustatuko beste tresna praktikoetako bat **Kultura 21: Ekintzak** da, Bilbon onartutakoa 2015ean. Tresna horren bitartez, hiriek aukera dute garapen jasangarriaren irizpideetan kultura integratzeko. Dokumentuak 100 ekintza zehatz aurkezten ditu, bederatzi Konpromiso tematikotan bilduta. Konpromiso horietan, hirietako bizi-kalitatearen dimentsio kulturala sendotzen laguntzen duten alderdiak daude jasota (ondarea, dibertsitatea, sormena, jende guztiak eskubide kulturalak baliatzeko aukera izatea, eta gobernantza egokirako akordioak), bai eta garapen jasangarriaren beste dimentsio batzuekin elkarreaginean aritzeko esparru-multzo bat ere:

1. Eskubide kulturalak
2. Ondarea, dibertsitatea eta sormena
3. Kultura eta hezkuntza
4. Kultura eta ingurumena
5. Kultura eta ekonomia
6. Kultura, ekitatea eta gizarte-inklusioa
7. Kultura, hiri-plangintza eta espazio publikoa
8. Kultura, informazioa eta ezagutza
9. Kulturaren gobernantza

Edonola ere, Agenda 21en **praktika onen datu-basean** mundu osoko 120 esperientzia garrantzitsu baino gehiago kontsultatu daitezke, 17 GJHen egituratik, Agendako 9 Konpromisoetatik edo gako-hitzetatik sartuta.

4.2 Prozesuak: Ingurumenaren jasangarritasunari buruzko ziurtagiriak

Atal honetan deskribatzen da zein den erakundeek ingurumen-kudeaketarekiko konpromisoa egiaztatzeko duten bidea. Horretarako, zenbait tresna aplikatuko dira, erakundeen prozesuek estandar homologatuetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko.

Ingurumen-kudeaketako sistemak

Ingurumenarekiko konpromisoa gero eta ardura handiagoa da mota guztietako erakundeetan, edozein dela ere euren jarduera, tamaina edo kokapen geografikoa. Konpromiso hori egiaztatzeko, enpresaren kudeaketa globalean ingurumena integratzen duten tresnak aplikatu ditzakete.

Illo horretan, **UNE-EN ISO 14001** arauaren arabera Ingurumen Kudeaketarako Sistema ezartzeko aukera dute, erakundearen garatutako jarduera bakoitzean sortzen diren ingurumen gaiak sistematizatuz, ingurumenaren babesa sustatzeko eta kutsadura ekiditeko. Kudeaketa-sistema honen bitartez, baliabideen eta hondakinen kudeaketa optimizatu nahi da, eta jarduerak eragindako ingurumen arloko inpaktu negatiboak edo ustekabeko egoerei lotutako arriskuak murriztu nahi dira.

Diseinuari dagokionez, ekodiseinurako arau zehatz bat dago (**ISO 14006**), diseinuaren eta garapenaren barruan prozesu integratu gisa deskribatzen dena. Arau horren helburua da ingurumen arloko inpaktuak murriztea eta produktuen ingurumen arloko jarduera etengabe hobetzea, beren bizitza-ziklo osoan. Modu berean, esan beharra dago IHOBek ETEetan **Ekodiseinua ezartzeko gidaliburu praktikoa** sortu zuela.

Existitzen den beste metodoetako bat **Global Reporting Initiative (GRI)** gidaliburua da, informazio ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa jasangarritasunari buruzko memoriaren modu dokumentalean integratzen laguntzen duena. Tresna praktikoa da, hainbat instituziok aintzat hartutakoa (besteak beste, NBEk edota Europako Batzordeak), eta erreferentziatzeko gidaliburutzat jotzen da jasangarritasunari buruzko memoriak prestatzeko orduan, Europako, Estatuako eta autonomietako garapen jasangarriko estrategietan.

EAE ingurumen-ziurtagiri gehien dituen lurraldeetako bat da, bai ISO 14001 ziurtagiriei eta bai GRI memoriari egiaztapenei dagokienez. Kultur erakundeak ez daude arau horien aplikaziotik at. Esate baterako, Guggenheim Bilbao Museoa ingurumen-kudeaketako ISO 14001 ziurtagiria lortu zuen lehen museoa izan zen espainiar Estatuan, 2004an. Kasu horretan, ingurumen-inpaktu potentziala erakusketen muntaketek eta desmuntaketek eragindako hondakinetatik dator, bai eta eraikinaren klimatizazioa egoerarik onenean mantentzeko behar den kontsumo elektrikoetik ere.

“Erronka Garbia” metodologia, ekitaldietarako

IHOBE sozietate publikoak garatzen duen metodologia honen helburua Eusko Jaurlaritzari laguntza ematea da, EAEko ingurumen-politika garatzeko eta ingurumen-jasangarritasunaren kultura hedatzeko. Horren bitartez, bermatu nahi da ekitaldiek ingurumen arloko neurriak integratuko dituztela beren diseinuan eta antolakuntzan, Nazio Batuen Ingurumen Programaren definizioarekin bat etorritik, zeinaren arabera honako hauek baitira ekitaldi jasangarriak: ingurumen-inpaktu negatibo potentzialak minimizatuz diseinatu, antolatu eta garatu direnak, eta ondare positiboak utzi dietenak erakunde antolatzaileei eta inplikaturako eragileei. Gauzak horrela, hauxe da **Erronka Garbia** metodologiaren helburua: ekitaldietara doazenengan eta ekitaldien antolatzaileengan kontzientzia piztea, jende asko erakartzen duten ekitaldiei lotutako inpaktu negatiboak murrizteko, hartara ahalik eta inpaktu txikiena izan dezaten ingurunean.

Metodologia horrek ekitaldiaren programazioari, finantziarioari, produkzioari eta komunikazioari buruzko jardueren ziklo bat du, eta, hain zuzen ere, jardueren horiek

diseinu, plangintza, antolakuntza, gauzatze eta jarraipen prozesu osoan egiten dira, bai eta ekitaldia desmuntatzerakoan eta amaitutzat ematerakoan ere. Ingurumen-irizpideen prozesuak jarduera horiei guztiei egin behar die aurre, ekitaldiaren garapen eta kudeaketa prozesuko lau faseetan. Ziurtagiriaren lehenetsuneko ardatzak mugikortasuna, energiaren eta uraren kontsumoa, erosketak eta hornidurak, ekipoak eta instalazioak, eta hondakinak dira.

Erronka Garbia metodologia aplikatzen ari diren ekitaldietako bi Mundaka Festival eta BBK Live musika-jaialdiak dira. Mundaka Festival, Euskadiko lehen jaialdi jasangarria 2016an, inguru babestu batean egiten da: Urdaibai Biosfera Erreserban. BBK Live, berriz, Kobetamendin egiten da, eta, 2018an, ingurumen-inpaktua murrizteko zenbait neurri hartu dira: edalontzi berrerabilgarriak erabiltzea, birziklapenerako edukiontzia dituzten gune garbi gehiago jartzea, eta komunikazio eta sentsibilizazio kanpaina bat abiaraztea jaialdiaren aurretik eta jaialdiak irauten duen bitartean.

4.3 Ebaluazioa: Inpaktuaren ebaluazioa

Inpaktuaren ebaluazioa

Inpaktuaren ebaluazioa ondo zehaztutako jarduna da sektore jakin batzuen artean; esate baterako, ingurumen, ekonomia eta gizarte sektoreetan. Oro har esanda, etorkizuna aurreikusten saiatzen da, eta, politika edo ekintza berrien ondorioz gerta daitekeenaren inguruko simulazioen bitartez, aholkuak ematen ditu erabakiak hartzeko orduan.

Inpaktuaren ebaluazioak hirurogeiko hamarkadaren amaieran du jatorria, eta, lehenengo eta behin, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan oinarritzen da. Herrialde garatuetan gero eta kezka handiagoa dago giza jardueren inguru naturalean duten ondorio suntsitzailerei buruz, eta, hain zuzen ere, ebaluazio mota hau kezka horren gaineko erantzun gisa sortu zen. Identifikazio, aurreikuspen eta ebaluazio prozesu gisa ulertzen da, eta garapenari buruzko funtsezko erabaki politikoak edo konpromiso estrategikoak hartu baino lehenagoko proposamenen ondorio biofisiko eta sozialak arindu nahi ditu.

Logika berari jarraituz, inpaktu sozialaren ebaluazioa ere badago. Ebaluazio hori honelaxe definitu zen: planifikatutako esku-hartzeen (politikak, programak, planak, proiektuak eta abar) ondorio sozialak (positiboak zein negatiboak, nahita egindakoak zein ez) eta esku-hartze horiek eragindako prozesu sozialen aldaketak aztertu, monitorizatu eta kudeatzeko prozesua.

Inpaktu ekonomikoaren ebaluazioak, berriz, 70eko hamarkadan hasi ziren aplikatzen Estatu Batuetan, jarduera edo erakunde batek ekonomian duen eragina aztertzeko, normalean herri edo eskualde jakin batean. Jarduera edo erakunde horrek sortzen dituen ekoizpena, errenta eta okupazioa zenbatestea da ebaluazio-mota horren ardatza. Kulturaren alorrean, horiek dira azken hamarkadotan gehien hedatu diren ebaluazioak.

Praktikan, inpaktuaren gaineko ebaluazioek ikuspegi horiek guztiak uztartzen dituzte. Adibidez, itzulera soziala ebaluatzeko ereduak ingurumen arloko elementuak jasotzen dituzte (hala ere, hainbat metodologia aplikatzen dituzte; besteak beste, SROI izenekoak, inbertsioaren itzulera soziala ebaluatzeko aukera ematen duena). Era berean, inpaktu ekonomikoari buruzko ikerketek (esate baterako, Guggenheim Bilbao Museoa egindakoak) ingurumen arloko gaiak ere jasotzen dituzte.

Inpaktuari buruzko ikerketen inguruko informazio gehiago jasotzeko, Kulturaren Euskal Behatokiaren [Inpaktu-azterlanen analisisa](#) txostena kontsultatu daiteke. Bertan, praktika onen adibideak daude jasota.

Inpaktuaren ebaluazioa

Kultur inpaktuaren ebaluazioa edo *cultural impact assessment* (CIA) delakoa beste sektoreetakoaren menpe geratzen da, eta gutxitan funtzionatzen du modu autonomoan. Garrantzitsua da argi uztea CIA ez dela kultur inpaktuaren gaineko ebaluazioa, baizik eta jarduera, programa edo proiektu batek kulturaren izango duen eraginari buruzko ebaluazioa.



“Kultura” terminoaren anbiguotasuna dela-eta, kulturaren gaineko inpaktua neurtzea zaila da; izan ere, termino horrek lar adostuta ez dauden adiera ugari biltzen ditu, denak ere eragile-multzo zehatz baten balio eta arauei lotutakoak historikoki. CIA etorkizuneko ikuspegia duen tresna gisa hartzen da. Erabakiak hartu behar dituztenei modu proaktiboan laguntzen die ondorio negatiboak arintzen edo saihesten, eta honako gai hauekin lotutako ondorio positiboak hobetzen laguntzen die: balioak eta sinesmenak, ideiak eta ideologiak, ohiturak eta tradizioak, eta ondare arloko beste elementu material zein immaterial batzuk. Lehen begiratuan, CIA inpaktu sozialaren ebaluazioaren barruko azpigai gisa har daiteke. Alabaina, garrantzitsua da kontuan hartzea azken hori erakundeekin eta portaera sozialarekin dagoela erlazionatuta, eta ez oinarrian dituzten ideia kulturalekin eta ideologiekin (adibidez). Hori dela-eta, CIAren balio erantsia kultur esparruaren barruan kokatzeko duen gaitasunean datza.

Kultur inpaktuaren aurreneko ebaluazioak 2002koak dira, eta kultur ondare indigenarekin, baliabideen kudeaketarekin eta jabetza estatalarekin erlazionatutako esparruetan hedatu dira. Neurri txikiagoan, turismoan, artean eta hiri-plangintzan ere erabili izan da. Mundu osoan aplikatu bada ere, nabarmentzeko modukoak dira komunitate indigenak dituzten tokietan egindako ebaluazioak; esate baterako, Australian, Zeelanda Berrian, Japoniako iparraldean, Hawaiiin eta Kanadan.

Adriana Partalek dioen moduan³, Jasangarritasun Zirkuluaren metodologia (Global Cities Research Institute delakoak eta Nazio Batuen Munduko Ituneko Hirien Programak – UNGCCP– garatutakoa) CIAren parte gisa aplikatu liteke.

‘**Jasangarritasun Zirkuluak**’ izeneko metodologia eskualde urbano baten eta bere inguruko hinterland-aren jasangarritasunaren deskribapen interpretatiboa garatzeko aukera eman nahi du. Hemen, jasangarritasuna tokiko prozesuekin eta prozesu nazional zein globalekin lotuta ulertzen da: prozesu ekologiko, ekonomiko, politiko eta kulturalarekin lotuta, hain zuzen ere. Hauek dira Jasangarritasun Zirkuluaren esparru kulturalak dituen zazpi ikuspegiak: Identitatea eta Konpromisoa, Sormena eta Birsorkuntza, Memoria eta Proiekzioa, Sinesmenak eta Ideiak, Generoa eta Belaunaldiak, Ikerketa eta Ikasketa, eta Osasuna eta Ongizatea.

³ *Impact Assessment: A tool to assist cultural sustainable development*, (2013)

5 Laburpen gisa

Humboldtten garaira joan gintezke, natura osotasun gisa hartzen duen ideiarene gaur egungo ikuspegia kokatzeko, zeinaren bitartez natura elkarri lotuta dagoen eta zaindua izan behar duen sare gisa hartzen baita. Besteek bi mende behar izan zituzten ideia hori barneratzeko, baina berak argi ikusi zituen gauzak hasieratik.

Jasangarritasunarekiko konpromisoa ez da gai berria munduko agendan, baina nabarmen areagotu da azken urteotan. Garapen Jasangarriaren Helburuak onartu izana (2015ean, NBEren 2030 Agendaren barruan) 80ko hamarkadan abiarazitako prozesuaren gailurra da, eta prozesu horren eragile nagusia Brundtland Txostena da, horrek piztu baitzuen garapen jasangarriarekiko interesa.

Garapen jasangarriaren oinarrian bi gai daude: begirada jaso eta epe luzera begiratzeko beharrezakoa; eta inguru hurbilean, tokikoan, aplikatzearen garrantzia. Hazkunde ekonomikoa, gizarte inklusioa eta ingurumenaren babesa harmonizatzeko gai garen edo ez, horren arabera izango da pertsonen eta planetaren etorkizuna. Eta, horretarako, konpromiso generiko hori aplikatu behar da ingururik hurbilenean. Agendaren definizio-fasetik, Nazio Batuek eta Europako Batzordeak garrantzi handia eman diote eskualdeetako eta tokiko gobernuek berau implementatzeari, gobernu horiek baitira gizartetik gertuen dauden errealitateen eta beharrezan gainerako eskumenak, baliabideak eta ezagutza zehatzak dituztenak. Lurralde bakoitzak bere egin behar du Agenda, bertako ezaugarrietara egokituta.

Garapen jasangarria agenda politikoan barneratu da. Garapen Jasangarriaren Helburuak hasiak dira aplikatzen, eta helburu horiek inplementatzeko metodologiak eta gidaliburuak daude, bai eta adierazle-sistemak ere, aurrerapen-maila ebaluatzeko. Txosten honetan jasota dagoen moduan, EAEko administrazioak jasangarritasunarekin konprometituta daude, arlo sozialean, ekonomikoan zein ingurumenekoan. Halaxe gertatzen da Eusko Jaurlaritzaren kasuan: Estatuko administrazio publikoaren barruan, Eusko Jaurlaritza izan da 2030 Agendarekiko konpromisoa islatu duen lehenengoa, eta Garapen Jasangarriaren Helburuekiko konpromisoa erakusten duen Agenda propioa osatu du.

Jasangarritasunarekiko inplikazio hori erreal da eta datozen urteotan are handiagoa izatea espero da, baina, kulturaren kasuan, NBEk ez du garapen jasangarriaren laugarren zutabe gisa hartu, eta aukera hori kultur sareak hartu beharko du bere gain. Kultura lausotuta geratuenez Garapen Jasangarriaren Helburuen erreferentzia-esparruan, elementu horrek jasangarritasunean funtsezko rola jokatzeko duela frogatzeko, kultur erakundeek gaitasuna izan beharko dute printzipio horiek asimilatze eta beren eragin-erradioa handitzeko, eta kultur politikak GJHen agendekin koordinatu beharko dituzte.

Kultur erakundeak jasangarritasunaren kontzeptua berenganatzen ari dira, eta hori frogatzen duten hainbat adibide daude. Besteak beste, museoetan eta musika-jaialdietan ingurumen-inpaktua murrizteko aukera ematen duten kudeaketa-sistemak ezartzea (bi kasu aipatzearen), edota elementu jasangarriak barneratzen dituzten kultur politikak hartzea. Izan ere, berez daude kultura hurbilaren barruan sartuta. Alde horretatik, nabarmentzeko modukoa da kulturaren Agenda 21ek duen garrantzia, berau aplikatzeko erreferentzia eta gida gisa.

Baina, era berean, jasangarritasunetik irakurketa kritikoa egin behar zaio produkzio eta kontsumo kultural nagusiaren inguruko ereduari. Hausnarketa sistemikoa izango litzateke. Hona hemen zenbait adibide, eztabaida zertan den kokatzeko: museo batzuek bisitari gehiago jasotzeko duten ezintasuna; ekitaldi jendetsu eta masiboak, arrakastaren sinbolo gisa; argitaletxeen ekoizpen eta banaketa ereduak, nobedade asko ateratzean eta liburuak mugitzean oinarritua; kultur jardueren eskaintzaren inflazioa; lan-baldintzak okertzea, eta abar. Kulturaren eta jasangarritasunaren arteko harremanen gainerako analisiak ezin du albo batera utzi sistema kulturalaren oinarri buruzko hausnarketa sakona.

6 Referencias

Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuak (2004). “Kulturaren Agenda 21”.

Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuak (2018). “Kultura, garapen jasangarriaren helburuetan. Tokiko ekintzarako gida praktikoa”.

Eusko Jaurlaritza (2018). “Euskadi Basque Country 2030 Agenda. Garapen Jasangarriko 2030 Agendari egindako euskal ekarpena”.

Eusko Jaurlaritza eta UDALSAREA 21 (2018). “Euskadi Basque Country 2030 Agenda. Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearen ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuei”. Ihobe.

Eusko Jaurlaritza eta UDALSAREA 21 (2017). **“Nola neurtu tokiko jasangarritasuna. Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko jasangarritasunaren adierazle-sistema”**. Ihobe.

MIRALLES, E. (2014) “La cultura, de factor de desarrollo a pilar de la sostenibilidad”. Kulturaren Agenda 21 – Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuen (HTGB) Kultur Batzordea.

Kulturaren Euskal Behatokia (2017). “Inpaktu-azterlanen analisia”.

PARTAL, A. (2013) “Impact Assessment: A Tool to Assist Cultural Sustainable Development”. Global Cities Research Institute, RMIT University, Melbourne, Australia.

Nazio Batuen Garapenerako PROGRAMA (2015) “Garapen jasangarriaren helburuak”.

UNESCO. (2017) “Hiri garapen jasangarriko kulturari buruzko Munduko Txostena”.



Kultura eta jasangarritasuna



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA